

Marmari

4. alea / 2001eko abendua

Leizako aldizkari gaztea

Leitzarren izana,
izena eta esanak.

- Inkestak, datuak...
- Testak, ariketak...
- Denborapasak,
bitxikeriak...
- Elkarriketak



Urte bukaeran,
Marmari eskueran!

ale honetan:



- 3. or. Editoriala.
- 4. or. Inkesta fidagarria. Zer behar du Leitzak?
- 5. or. Errezeta berezia. Oilaskoa Whiskyarekin
- 6. or. Xelebrekeriak...
- 7. or. Hizkuntz ariketak. Nola idatziko zenuke?
- 8-9. or. Zenbait datu... Leitzako populazioa
- 10-11. or. Buruari eragin.

12-13. or. Elkarrizketa. Euskowoman eta Euskoman

14-15. or. Ez-ahozko hizkuntza. Gorputza hizketan

16-17. or. Testa (1 eta 2).

18-19-20. or. Esaera zaharrak. Herri jakinduria?

21. or. Ezetz asmatu?...

22-23-24. or. Leitzarren izenak.

25-26. or. Gure barruko laguna.

27. or. Eroskopa - Letra zopa.

Printzeak ere euskaraz

Baina nola kexatu gaitezke horrenbeste euskara dela eta ez dela? Ez al dugu ikusten agintariek serio hartu dutela kontu hau? Begira, bestela, Asturiaseko Printzeak Nafarroara egindako bisitaldian erakutsitako detaileak. Benetan hunkigarria: Felipe Printzea eta Miguel Sanz, Lehendakari Jauna, biak elkarri agurra euskaraz egiten. Akaso, Aznar presidenteak katalanerarekin egiten omen duen bezala (berak esana da), intimitatean euskaraz hitz egiten dute. Imajinatzen al duzue Miguelen eta Feliperen arteko elkarriketa, intimitatean?



M: ser, Felipe, gustatsen riberako esparragoak?

F: baaaai, nire aita esaten besala, kojono doak daude.

M: eta Nabarra? Gustatsen nabarrikoak?

F: bai, asko. Jotak, ardoa, elisak, monteak... ah, eta euskara. Euskara oso polita da.

M: eh, eh! Es pasatu, Felipe. Euskara, bakarrik intimitatean, katalana besala. Eta batsuetan, oso gutxitan, telebisioan, euskaltsaleak basilatzeko.

F: aaaah, bale, bale, Miguel, es hasarretsen, lasai.

Ez dakigu hala egiten duten. Baina egia dena da agerraldi publiko horretan hitz batzuk euskaraz egin zituztela. Nor konbentzitu nahi ote dute? Nafarroako presidenteak euskararen inguruan duen jarrera ikusteko balantzaren bi aldeak nola bete dituen begiratu beharko dugu:

ALDE: Printzearen aurrean bi hitz esan zituen (tripak nahasi ote zitzaizkion?).

AURKA:

- Komunikabide euskaldunei dirulaguntzak murriztu edo oso-osorik kendu

- Nafarroako Gobernuaren lanpostuetan euskara ezagutu beharra murriztu

- Euskaltzaindiari eta Eusko Ikaskuntzari dirulaguntzak kendu

- Durangoko Azokara ordezkariarik ez bidali

- Euskaraz sortutako testuliburuak baztertu

- Lehen elebidun egiten ziren hainbat gauza erdara hutsez egin daitezen agindu

- Administrazioan euskararen erabilera murrizteko dekretuak eta planak onartu

- Nafarroako aurrekontuetan euskararentzako dirulaguntzak murriztu, arlo guztietan

Eta abar, eta abar, eta abar...

Aurkako neurrien zakua aise beteko genuke, egunero-egunero jasotzen baitugu horrelakoen berri. Imajinazio eta diziplina handiko norbait jarri dute hor lanean, nekez uler daiteke bestela euskararen normalizazioa oztopatuko duten hainbeste erabaki hartzea, hain ordenatuta eta hain modu eraginkorrean.

Euskararen «alde» egiten duten lanean adibide politikak daude. Adibidez, komunikabideen arloan: Euskaldunon Egunkariak, esaterako, 8 orrialdeko gehigarria argitaratzen du, «Nafarkaria» izenekoa, euskaraz. Bada, gehigarri horri ematen zitzaion 7.200.000 pta inguruko laguntza desagertu egin da eta, sorpresa!, badakizue nori handitu dion 450.000 pta ingurutik

5.200.000 pezetara dirulaguntza? Bai, asmatu duzue, Diario de Navarrari! Zeren truke? Igandetan argitaratzen duen «Nafar hizkuntza» euskarazko orrialdeagatik. Zalantzarik gabe, Diario de Navarra bezalako egunkari euskaltzale amorratuak Euskaldunon Egunkariak baino gehiago merezi du euskara laguntzeko dagoen dirua jasotzea, ezta?

Tira, ironiak alde batera utzita, argi esan behar da benetan gogor ari direla euskarak normalizatzeko dituen aukerak zapuzteko ahaleginean. Editorial hone-tan, egia esateko, geure buruari, alegia, euskaldunon euskaltzaleoi, egur pixka bat emateko asmoa genuen, geuk ere pixka bat merezi baitugu, gure epelkeria eta kontraesanak direla eta. Baina egia esan behar bada, Nafarroako Gobernuak gure kritika eta salaketa jasotzeko hainbeste eta hainbeste aitzakia eta arrazoi emanda, zaila gertatzen da besteontzat uztea. Horrela jarraitzen duen bitartean, beraz, bere txikian, gure kritika eta astinduen protagonista izaten jarraitu beharko du.

ZER BEHAR DU LEITZAK?

Inkesta hau Leitzan egin dugu 2001eko udazkenean eta Leitzako 3.566 biztanlek erantzun dute. Horietako 3.212 emakumezkoak ziren eta gainerako 2.973ak gizonezkoak.. Kontuan izanda Leitzako biztanleak 3026 direla, % 117k erantzun duela ikus dezakegu. Beraz, inkesta guztiz fidagarria eta zientifikoa da gurea. Galdera, hauxe izan da: **ZER BEHAR DU LEITZAK?** Eta erantzunak jarraian emanen dizkizuegunak.

Nolanahi ere, erantzunen zerrenda azaldu baino lehen ohar txiki bat egin nahi dugu. Erantzunak inolako sailkapenik egin gabe eman ditugu, eta proposamen bakoitza zenbatek aipatu duten ez dugu zehaztu. Lehentasuna zeinek izan beharko lukeen jakiteko buzoi bat jarri dugu, eta nahi duenak hor eman dezake bere iritzia. Buzoia, 15 x 15 cm-ko kutxa berde bat, Erasote auzoko pago baten ondoan jarri dugu. Beraz, zuen iritzia paper batean idatzi eta bertan utz dezakezue nahi duzuenean. Gu egunero pasako gara, iluntze aldera, erantzunak biltzera.



LEITZARREN ERANTZUNAK «ZER BEHAR DU LEITZAK?» GALDERARI:

- Herriko kirolari saiatuentzat gimnasio birtuala
- Santa Krutzeroa igotzeko eskailera mekanikoak
- Eskuineko pareta duen pilotalekua
- Lur azpiko aparkalekua plazan, larunbatetarako
- Saskibaloi talde profesionala
- Sex-shopa
- Zerrien eskubideen aldeko batzordea
- Golf zelaia
- Hondartza bat udarako
- Bakailu diskoteka
- Pelikulak grabatzeko estudioak
- Urtean egun bat aukeratzea, 4 x 4en desfilea egiteko
- Eski-estazio bat
- Bertako neska-mutil lirain eta ederrentzat «Leitzarra» jatorrizko izendapena
- Metroa
- Parapentean salto egiteko lekua
- Ziber-ostatu
- Streaptes maskulinorako areto bat
- Amazabalerako lineako autobusa
- Gaupaseroen errekuperazio-zentrua
- Ballet talde bat
- Konpartsako erraldoientzat udarako arropa egokia
- Nazioarteko konferentziak eta kongresuak egiteko eraikina
- Sanferminak ere Leitzako pesta ofizial bihurtzea
- Etxeak egiteko beste 1.000 hektarea herriko kaskoaren ondoan
- Lanik egin gabe soldata ordainduko duen enpresa berria
- Belodromo bat
- Gaztelu edo jauregi bat
- Umeentzako parke tematiko bat
- Taberna jeavy bat
- Mezquita bat, sinagoga bat eta pagoda bat
- Leitza Euskal Herriko hiriburu izendatzea
- Herriko kaleak non hasi eta non bukatzen diren jakiteko ikastaroa
- Garagardo fabrika bat
- Eztei-agentzia bat
- Zirugia estetikoak egiteko ospitalea
- Asto-lasterketa profesionaletarako zirkuitoa

OILASKOA

Prestatzeko era:

1. **urratsa:** oilaskoa hirugiharrekin bete, lotu, gatza eta piperra jarri eta olio pixka bat bota
2. **urratsa:** labea 180 gradutan jarri hamar minutuz
3. **urratsa:** baso bat whisky edan, lana arintzen laguntzeko
4. **urratsa:** oilaskoa labean sartu
5. **urratsa:** beste baso bat whisky prestatu, edan eta labea begiratu, begirada galdu samarraz
6. **urratsa:** terbostatoa 150 gramotan jad-di e binutuz itzzoin
7. **urratsa:** betste bbaso bat whisky, ero bi bbas demontre!, edan
8. **uratsa:** pixxka bat geranduago, abea lireki ko latxeko. Oilasko txurrrutadda bat bbota whis eta besste guiski bat zuuretzako
9. **urratxa:** oilaskoari bueltta eman eta labbea i esskua erre, kaka zahagga!
10. **uggatsa:** aulkki batean esegitzen xaiat txxuupito batttzuk eran minutuak passatzzen biatrtean
11. **urratsa:** oilassgoa labetik atrera eta zafi ba luggetik jaso. Plateg batean, banjedan edo antzo pildu.
12. **urratttsa:** kaskezugga hautsi koipean igg ondogen
13. **uratxa:** bootila g-, g-asgatu gabe altxatzen s eta, hirruzpalauf saiakegen ondddoren, ohagtu : luggen espezial egotenn dela
14. **uggatssa:** botila pukatu agte onngi-onngi eta oheraino aggstaka alla-tu. Lo egin.
15. Biharamonean, nahikoa kafe har ezazu esplikar ez duen buruko minari aurre egiteko, oilasko maionesarekin jan, hain lehorra egon ez dadi eguneko gainerako orduak erabili bezperan egi txikizioa konpontzeko.

WHISKYAREKIN

OSAGIAK

oilaskoa

botila bat whisky

hirugiharra

oliba-olioa

gatza eta piperbeltza



EDABE MAJIKOAREN PARE

Formula zehatza bi pertsonen bakarrik ezagutzen omen dute. Enpresak, hauen izenak sekretupean dauzka eta elkarrekin bidaiatzea debekatuta daukate. Bata hiltzen den garaian, beste arduratzen da sekretua gordetzeko pertsona egokia aurkitzeaz eta inori ez esatearen ardura hartzen du, zinpean. Hori entzutean, NASaren proiekturen batez ari gara la pentsa genezake. Ba ez da hala, Coca-colaz ari baikara! Hori da «Yankee»ek edari unibertsalaren formula gordetzeko egiten dutena. Horrelakorik egitea ere! Yankeeak izan behar!



HATXISA SENDAGAI

k.a XXVIII.mendean mediku Txinarrek hatxisa, malaria eta memoria galtzearen aurkako erremedio gisa erabiltzen zuten. Sarritan entzun dugun bezala, erabileran eta hauekin bizitzen jakitean dago koxka!

BORRAJA

Ez gara ez, borraja nola prestatzen den esaten hasiko, baina honi buruz, gauzatxo bat aipatu nahi dizuegu. Greziarrek, ardotan egondako borraja erabiltzen omen zuten depresioaren kontra. Efektua ardoari edo borrajari ote zegokion jakiteko, probatu egin behar.

ESAERA BAKOITZARI DAGOKION BUKAERA EMAN

- 1.- Egon Hadi lo
- 2.- Bost xentimoko pupua
- 3.- Nagusi askoren astoa
- 4.- Airea buruan
- 5.- Harri-urte
- 6.- Etxe huts
- 7.- San Bizente hotz
- 8.- Ur urtea
- 9.- Usteak
- 10.- Gogoko tokian
- 11.- Harriak
- 12.- Abenduko eguna
- 13.- Geroa
- 14.- Osasuna
- 15.- Hartzeko pronto
- 16.- Ameriketan ere
- 17.- Urrutiko intxaurreak hamalau
- 18.- Gaizki esanak barkatu



GARESTIA... BAI HORIXE!

Azafrana sukaldaritzan erabiltzen den espezia preziatua da. kilo osatzeko, milioi bat lore bildu behar dira. Berriz ere izanen da garestia!

AURTEN AJERIK EZ

Neguko denboralia helu dela-eta, hortxe ibiliko gara, sagardotegiak gora, ihauteriak behera. Honek, behin baino gehiagotan festondoak jota buruan norbait mailukazoka izanen bagenu bezala esnatuko garela esan nahi du. Tira ba! Parrandan ibiltzeari utziko ez diogunez, aurten aje txikiagoa izateko balioko duen erremedioaren berri emanen dizuegu. Eztia, hain zuzen ere. Edan aurretik edo etzan baino lehen ogi-xerra eztiarekin jan eta agur aieari.



DATU ESANGURATSUAK


- 1587.urtean Nafarroako 509 herrietatik 451 euskaldun ziren.
- Erdi aroan, Huesca eta Leridako zenbait herri, euskaldun ziren.
- Ternuako (Terranova) jatorrizko biztanleek euskaraz zerbait ikasi zuten balea arrantzaleekin izandako harremanetan.
- 1811.urtean Napoleonen armadak Iruñeko kaleetan barrena jarritako zenbait agiri euskaraz idatzi zituen.

IZUGARRI LUZEA

Pikuondoaren sustriak 125metro baino gehiagoko sakonera har dezake.

ESPERMA

Mediku greziarrek eta erdi aroko medikuek, esperma garunean sortzen zela uste zuten. Ez zebiltzen oso zuzen...



1-9 • 2-10 • 3-11 • 4-14 • 5-15 • 6-16 • 7-17 • 8-18 • 9-5 • 10-1
11-4 • 12-6 • 13-3 • 14-2 • 15-7 • 16-13 • 17-12 • 18-8

Soluzioak

NOLA IDATZIKO

Normalean euskara batuaz idazten dugu, ezta? Bakarren batek esan-nen du: «ez, normalean ez dugu idazten». Bale, egia da, baina idaz-ten dugunean, euskaraz idazten dugunean, batuaz egiten dugu gehienok. Ez gaude ohituta nork bere euskalkian edo bizi den herriko hiz-keran idazten. Zergatik? Arrazoi ugari egonen dira eta ez gara orain hori azaltzen saiatuko. Baina zuk, Leitzako euskaraz idatzi behar izanez gero, nola egingen zenuke? Adibidez:

ZENUKE?

a) «Zuk, nik nahi dudana egin behar duzu». Nola idatziko zenuke?

- 1.- Zuk, nik nahi dotena egin behar dozo
- 2.- Zuk, nik nai dotena in behar dozo
- 3.- Zuk, nik nai dotena in beazo
- 4.- ...

d) «Lan egitea oso gogorra da»

- 1.- Lan egitea oso gogorra da
- 2.- Lan egitea oso gogorra da
- 3.- Lan ittea oso gorra da
- 4.- Lan ittea oso goorra da
- 5.- ...

b) «Berandu ailegatuko zinela pentsatu dugu»

- 1.- Berandu ailegatuko ziñela pentsatu dugu
- 2.- Berandu allatuko ziñela pentsatu duu
- 3.- Berandu allatuko ziñela pentsatu du
- 4.- Berandu allatuko ziñela pentsatu'u
- 5.- Berandu ailegatuko ziñela pentsatu dû
- 6.- ...

e) «Nik uste dut zu ez zarela pilotan aritzeko gauza»

- 1.- Nik uste dot zu ez zarela pilotan aritzeko gauze
- 2.- Nik uste dot zu ez zaala pilotan aritzeko gauze
- 3.- Nik uste't zu ez zala pillotan aitzeko gauze
- 4.- Nik uste't zu etzala pillotan aitzeko gauze
- 5.- ...

Tira, aukera gehiegi ez ote dago? Hainbeste pentsatu behar al da hain esaldi motzak idazteko? Ez, ez da hain latza izanen, behin «estilo» edo irizpi-de bat izanda. Baina gauzak ez dira itxuraz diren bezain sinpleak, badago hor ere saltsa pixka bat. H-a idatzi beharko litzateke? Hitzak osorik edo esaten ditugun bezalaxe idatzi? Eta

beste hainbat galdera. Aurreneko gal-dera, hala ere, haxe da: merezi ote du horregatik kezkatzea? Merezi ote du Leitzako euskaraz idazten saiatzea? Eta merezi baldin badu, denok berdintsu idatzi beharko genuke?

Oraingoan, behintzat, galderak bai baina erantzunik ez dugu emanen. Bes-

teak beste, ez garelako gu erantzun horren jabe. Nahikoa dugu, oraingoz, eztabaidarako aitzakia eta, agian, buru-ko mina ematearekin. Nolanahi ere, inork erantzunik edo proposamenik baldin badu, lasai eman dezala, gustura adituko baitugu. (gustora adituko bait dugu? gustora adittuko baituu? gustora aittuko baituu?...)



MUSUNZAR
OSTATUA
JATETXEA
 Elbarren kalea, 14
 Tel.: 948 51 06 07 - 948 51 04 75
 LEITZA (Nafarroa)

HERRIKO TABERNA
Torrea
Euskal presoak etxera!
 Tel.: 948 61 09 09



Gaztañaga
TABERNA
Otaratekoak, pintxo beroak,
kaxuelak
 Tel.: 948 61 07 08

Leitzako populazioa

Artikulu labur honetan, Leitzaren inguruko zenbait datu emanen dizkizuegu. Ez gara soziologoak, beraz, ez dugu aparteko azalpen edo irakurketarik eginen. Besterik gabe, datuak ikustean burura etorri zaizkigun zenbait ideia azpimarratuko ditugu, gure ustez garrantzitsuak edo interesgarriak direlako.

Egokiena, hala ere, datu hauek arretaz aztertu eta nork bere modura interpretatzea da.

BIZTANLE KOPURUAREN BILAKAERA

URTEA	Biztanle kopurua
1857.....	1.722
1860.....	1.679
1877.....	1.479
1887.....	1.384
1897.....	1.423
1900.....	1.426
1910.....	1.579
1920.....	1.705
1930.....	1.656
1940.....	1.649
1950.....	1.679
1960.....	1.626
1970.....	2.623
1975.....	3.191
1981.....	3.262
1986.....	3.176
1991.....	3.161
1996.....	3.086
1998.....	3.026
1999.....	3.003

1. Ia ehun urtez Leitzako populazioa mantendu egin da. 1860 eta 1960 urteetan biztanle kopurua oso antzekoa zen (1650 ingurukoa).

2. 1960.eko hamarkadatik aurrera, berriz, biztanleria bikoiztu egin da 15 urteko epe laburrean (1960-75). 1.600 ingurutik 3.200 biztanlera iritsi zen Leitzara 15 urte horietan. Jakina, SARRIO lantegiak zerikusi handia izan du horretan.

3. Populazioa urte gutxitan bikoiztu zen arren, Leitzak herri euskalduna izaten jarraitzen du. Kanpotik etorritako gehienak, beraz, euskaldunak ziren eta, oro har, guztien seme-alabak eskolaren bitartez euskaldundu dira.

4. 1980. hamarkadan gorako joera gelditu egin zen eta, pixkanaka bada ere, beherako joera ikus daiteke, inguruko gainerako herri gehienetan bezala.

5. Leitzara nekazaritza eta abeltzaintza giroko herria zen duela gutxi arte, baina azkeneko urteotan edo hamarkadetan herri industrialara izatera iritsi da, eta giroa ere hiritarxeagoa dela esan daiteke. Nolanahi ere, oraindik ere gordetzen du «herri-giro» hori, bai eguneroko bizimoduan eta baita hainbat ohituretan ere.

LEITZAKO ERROLDAKO DATUAK:

Hurrengo taulan agertzen diren datuak Leitzako erroldatik atera ditugu. Adierazten dutena hau da: gaur egun Leitzan erroldatuta («enpadronatuta») dauden pertsonen artean, zenbat diren urte bakoitzean jaiotakoak. Beraz, «1965-42» datuak esan nahi du gaur egun Leitzan erroldatutakoen artean 42 pertsona 1965 urtean jaioak direla.

Estatistika hauetan, beraz, Leitzan jaio baina herritik alde egin dutenak faltako dira, eta Leitzan jaio gabe herrira bizitzera etorri direnak agertuko dira. Hala ere, bi talde hauen proportzioa txiki samarra izanen denez, urte horietan jaiotakoen kopurua hemen agertzen denaren oso antzekoa izanen da.

URTEA	Urte horretan jaiotako biztanle kopurua
1965.....	42
1966.....	45
1967.....	48
1968.....	40
1969.....	39
1970.....	54
1971.....	54
1972.....	52
1973.....	52
1974.....	45
1975.....	65
1976.....	66
1977.....	63
1978.....	48
1979.....	45
1980.....	50
1981.....	48
1982.....	56
1983.....	33
1984.....	38
1985.....	33
1986.....	23
1987.....	36
1988.....	33
1989.....	16
1990.....	29
1991.....	30
1992.....	20
1993.....	26
1994.....	26
1995.....	17
1996.....	23
1997.....	15
1998.....	12
1999.....	22
2000.....	19
2001.....	14 (ilbeltza-urria)

Estatistika honek aurrekoarekin lotura handia du. Ikus daitekeenez belau-naldirik jendetsuenak 1970. hamarkada-ren erdialdean sortutakoak dira. 60 lagunetik gorakoak dira garai horretakoak. Gaur egun, berriz, 20ra iristeko nahikoa lan!

Kopuruari dagokionez belau-naldirik murriztenak 1997-98 urtekoak dira, 12-15 ingurukoak baitira. Kostako da garai bateko 15 edo 20 laguneko koadrila horiek osatzea, non eta ez diren urte bereko haur guztiak biltzen horretarako.


Leitzako egoera ez da, hala ere, salbuespena edo aparteko gertaera. Jaiotza kopuruaren beherakada oso fenomeno zabaldua da eta, esaten dutenez, Nafarroa da Europan jaiotza-tasa baxuena duen lurraldea. Badirudi, nolanahi ere, Europan eta baita gurean ere beheranzko joera hori gelditu egin dela.

Hauexek, bada, eskuratu ditugun datuak. Azterketa sakonagoa egiteko bidea ematen dutenez, norbaitek lan hori hartuz gero pozik argitaratuko dizkiogu ondorioak aldizkari honetan. Beraz, ea nor animatzen den.



Arretaz begiratu marrazkia. Bi lerro horiek, paraleloak al dira?

Bestela dirudien arren, zuzen-zuzenak eta paraleloak dira. Ikusmenak engainatu egiten gaitu. Marrazkiaren erdiko puntu borobil beltzetik ateratzen diren lerroen ondorioz, bi lerro lodiak erdialdean urrundu egiten direla iruditzen zaigu, baina ilusio bat besterik ez da.



Zergatik ikusten dugu kubo bat zirkuluez osatutako irudi honetan?


Seguru asko «jarraitasun onaren legea» dela-eta. Lege honek dioenez, lerro zuzen bat edo kurba oso leuna duen lerro bat jarraitzen duten elementuak, forma bakar baten zati balira bezala identifikatzen ditugu, nahiz eta elkarren artean banatuta egon.



Gaztea eta zaharra

Zuetako batzuek irudi honetan emakume zahar bat ikusiko duzue, besteek, berriz, Toulouse-Lautrec estiloko gaztea. Ongi erreparatu, koardro berean biak baitaude.

Gure esperientziek eta gure espektatibek ikusten duguna baldintzatzen dute, neurri batean behintzat. Horregatik, irudi beraren aurrean, gauza ezberdinak ikusten ditugu.



Erdian dauden bi zirkuluetatik, zein da handiena, ezkerrekoa edo eskuinekoa?

Ez bata eta ez bestea. Biak berdin-berdinak dira.

SAGASTI

TABERNA ETA JATETXEA

Gosariak, kaxuelak, ogitartekoak

Bazkariak eta afariak

Tel.: 948 61 06 37 - LEITZA




- Otartekoa ogi beroarekin
- Kaxuelak
- Era askotako pintxoak
- Olagarroa - Grabak
- Ziztorra sagardotan

Elbarren, 16 - Leitza
Tel.: 948 61 08 64

Arakindegia


Jatetxea

Tel.: 948 51 00 52




Irudi honetan bi animalia daude.

Ikusten al dituzu? Alde batetik, ahate baten burua dugu. Bestetik, untxi batena.



Zuzenak ala okerrak

Ez du ematen lerro horizontal hauek paraleloak direnik, baina hala dira. Lauki beltzen posizioak sortzen digun gezurrezko ilusio optikoaren ondorioz, irudia gaizki interpretatzen dugu.



Bide hau, ustez, zelai-zelaia da. Hala ere, lehendabiziko pisura eramanen gaitu.

Nola izan liteke? Errealitatean behintzat ezin da horrelakorik eraiki. Berriz ere, gure ikusmenak engainatu egin gaitu.

Zein dira, benetan, elefante honen hankak?



Jose Ignacio Arzallus
Harategia - Urdaitegia
Etxeako txistorra

Tel.: 948 51 03 77 - LEITZA
Tel.: 948 68 30 42 - BERAESTEGI

Okindegia - Gozotegia
EGYZKITZA

Erreka, 3 behea - Tel.: 948 51 06 14 - LEITZA
Elbarren, 35 - Tel.: 948 61 06 46 - LEITZA
San Frantzisko, 24 - Tel.: 943 65 00 41

HARATEGIA-URDAITEGIA
URKIOLA

Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

Tel.: 948 51 04 67 - LEITZA

Euskowoman eta Euskoman LEITZAN



■ **Marmari:** Zein da zuen misioa gure planeta honetan? Zertara etorri zarete?

Euskoman: Euskara salbatzera etorri gara. SOS Galaxiako zentroan dei anonimo bat jaso genuen, hemen hizkuntzarekin larrialdi bat zenutela zioena. Broma bat ez zela egiaztatu ondoren (nahikoa gauza erraza, portzierto), Galaxiako Kultur Aniztasuna Zaintzeko Batzordeak Euskowoman eta Euskoman bidaltzea erabaki zuen. Beraz, hementxe gaituzue euskararen superheroiak.

■ **Marmari:** Barkatu, baina euskararen superheroiak zarela kontuan hartuta, zuen izenak ez du oso itxura euskalduna. «Euskoman»

euskara ezagutzen. Nola prestatu zenuten zuen misioa?

Euskowoman: Garrantzitsuena lehenbailehen L.E.I.T.Z.A. lortzea izan zen, alegia, Luzarorako Euskal Izaera eta Tankera Ziurtatzeko Agiria lortzea. Ondoren E.S.N.E.A. eman ziguten, hau da, Euskal Sena Nabarmentzeko Elixir Abertzalea, euskal senaz eta sentimendu abertzalez jabetu gintezen. Esan behar dugu, zuen aldizkariko irakurleek tentazioaren akui-lua senti ez dezaten, elixir hori soilik superheroiok har dezakegula eta alperrik izanen dela beste inorentzat eskatzen has-tea.

Euskoman: L.E.I.T.Z.A. eta E.S.N.E.A. lortu ondoren, geure burua hona etortze-

«EUSKARA SALBATZERA ETORRI GARA. SOS

eta «Euskowoman» ingelesezko hitzak dira.

Euskowoman: Aizu, herri txiki bateko aldizkari xume bat besterik ez zarete eta zuek ere hasi behar al duzue alukeriak galdetzen? Tira, egia da, bai. Hona etorri baino lehen, bidaia prestatzeko garaian, Nafarroako Gobernuaren idatziak eta argitalpenak irakurtzen aritu ginen, geure burua prestatzeko: ingelesaren goraipamenak han eta hemen, oposaketetan askotan ingelesak euskarak baino gehiago balio zuela ikusi genuen... hura ere bertako hizkuntza zela iruditu zitzaigun. Gure aholkularien akatsa izan da, gehienbat, baina superjantziak dagoeneko eginak dauzkagu eta berriak egiteko aurrekonturik ez, oraingoz. Beraz, izenari eutsi egin behar!

Euskoman: Gainera, kontuan izan superheroien artean badagoela tradizio bat izenari dagokionez: superman, batman, spiderman...

■ **Marmari:** Aitzakia merkea da zuena, baina aurrera egin beharko dugu elkarrizketarekin. Aldez aurretik ez zenuten Euskal Herria eta

ko prestatu genuen: Euskal Herriaren historia aztertu genuen; Bertsolari Txapelketako grabaketa guztiak ikusi genituen; euskal literaturako klasiko guztiak ezagutu; Benito Lertxundi, Xabier Lete, Mikel Laboa eta horien kantagintzaz gain, tradizio zaharreko euskal kantu guztiak ikasi... Jakina, hori baino lehen euskara ikasi behar izan genuen: NOR; NOR-NORI; NORK-NORI-NOR; NORK-NORI-NOR-NOLA; NOR-NORI-NORK-NOLA-NOIZ...

■ **Marmari:** Euskara batua ikasi zenuten? Euskalkiak?

Euskowoman: Dena ikasi genuen. Batua eta euskalkiak. «Igela»esateko Euskal Herrian dauden 63 modu ezberdinak, duzu-düzü-dezu-desu-dozo-dosu aditz-formak, liezazkizuekete edo bazeniezazkigute bezalakoak... Okerrena izan da oraingo euskaldunen euskara ulertzeko espainola eta frantsesa ere ikasi behar izan ditugula.

■ **Marmari:** Leitzako hizkera ere ikasiko zenuten, beraz?

Euskoman: Bai, jakina. Hemengo formak ere ikasi ditugu: «dozo», «ziñuzen»,

Zorionekoak gu, Marmari aldizkari-kook eta baita zuek ere irakurle fidelak. Badugu-eta pozik egoteko arrazoirik. Izan ere, Euskoman eta Euskowoman superheroiekin elkarrizketa eskusiboa lortu dugu, orain arte beste inork egin ez duena. Nola lortu duen Marmari bezalako aldizkari xume batek eskusiba? Azalpena, egia aitortu behar bada, nahikoa erraza da. Gure bi elkarrizketatuak, superbikotea, duela gutxi Leitzara etorri da bizitzera, gurera bildu da, alegia. Herritar arruntak ez daki nor diren, superheroi guztiak bezala beren nortasuna gordetzen dutelako, baina gure artean daude, gure artean bizi dira. Elkarrizketa honetan, eskusiban, pertsonai hauen inguruko zenbait argibide bildu dizkizuegu.

«do», «ostrilika», «kolle», «joan dezaket»...

■ **Marmari:** Nola «joan dezaket»? Hori ez da hemengo euskara!

Euskowoman: Ba hemen noiznahi aditzen da, «joan dezaket», «etorri dezaket». Nik hemengoa dela uste dut.

■ **Marmari:** Ez, emakumea. Erabiltzen da, baina okerra da guztiz. Hemen beti esan izan da «joan natteke» edo «etorri natteke», eta beste, «joan dezaket», espainolaren kalko hutsa besterik ez da.

Euskoman: No jodas! Ai, barkatu! Arranopola! Gaizki ikasi ote dugu dena?

■ **Marmari:** Ez, ez. Lasai. Izanen duzue denbora gauzak zuzentzeko. Jarrai dezagun. Badakigu Euskal Herriko beste zenbait ingurutan probatu ondoren, azkenean Leitzarta hartu duzuela bisitoki. Zergatik?

Euskowoman: Hasieran inguru erdaldunagoak hautatu genituen, egoera larriagoa zelako eta gure beharra han handiagoa zelako. Emaizta ikusgarriak lortu genituen: erdaldunak egun batetik bestera euskalduntzen ziren, A ereduak D

relakoetan, antidotoa behar izaten dugu: Leitzako esaera zaharren bilduma erreizitatzeko, Xalbadarren bertso bat edo beste kantatu, edo UEMAren estatutuak irakurtzen ditugu... Normalean, nahiko azkar sendatzen zaizkigu zauriak. Azken batean, superheroiak gara.

■ **Marmari:** Euskoman eta Euskowoman baditugunez, Euskochildren-ik espero al dezakegu?

Euskoman: Bai, baina «Euskochildren» izan beharrean «Euskotxildren» izanen dira.

Euskowoman: Edo «euskoumeak».

Euskoman: Hala ere, hemen Leitzan umeak euskaraz bizi direnez, beharrezkoagoa izanen litzateke «euskogazte» edo «euskolarri» bat.

Euskowoman: Motikoa, «Euskolarri» horrek edozein gauza ematen du. Ez al da hobe «euskoheldu» esatea?

Euskoman: Tira, nahi duzun bezala. Kontua da bertako gazte edo helduren bat hautatu eta superboteak ematea ere aztertzen ari garela.

■ **Marmari:** Horrelakorik egin al dezakezue? Zein dira horretarako be-

Euskoman: Beno, ejem, presaka gabiltza eta horrelaxe utzi beharko dugu gaurkoz. Goraintziak Marmari aldizkariko irakurle guztientzat eta izan ongi.

Horrelaxe utzi gintuzten, irakurle, gure superheroiek. Ziur asko beren superboteekin arazo larriren bat konpontzera atera beharko zuten, bai baitakigu euskararen aldeko indarrak, galaktikoak nahiz lurtarrak, eskuak bete lan dabilatzala azken aldi honetan. Ohartxo bat, hala ere, utzi digute: ez dago ez-dakit-nongo-galaxiakoa izan beharrik euskararen aldeko lanera arimatzeko eta bertan gustura ariatzeko. Beraz, alde-aldeko aitzakiarik ez duenak badaki, animo eta lanera!

GALAXIAKO ZENTROAN DEI ANONIMO BAT

JASO GENUEN, HEMEN HIZKUNTZAREKIN

LARRIALDI BAT ZENUTELA ZIOENA»

bihurtzen ziren, ETBk trikiti txapelketaz eta Faltzesko entzierroaz gain pelikula eta saio onak ematen zituen...

Euskoman: Baina egunez gure superlanean gastatzen dugun energia gauez berreskuratu behar izaten dugu, eta horretarako euskara bizi-bizirik dagoen atsedentokia behar dugu, euskararen arima eta izpirituaita baita gure energia-iturria. Euskararen esentzia arnastu beharra daukagu.

■ **Marmari:** Eta Leitzarta horretarako egokia al da?

Euskowoman: Hala uste genuen eta horregatik etorri ginen. Iruñean edo Barakaldon baino bizitasun handiagoa du euskarak, zalantzarik gabe, baina hemen ere erdararen interferentzia uste baino handiagoa da. Horregatik, esaterako, gazte euskaldun eta abertzaleen arteko erdarazko elkarrizketa bat entzuten dugunean, azalean pikorrak ateratzen zaizkigu eta lepondoan orban hori bitxi batzuk. Ho-

te beharreko baldintzak? (Erne irakurleok! Batez ere funtzionario izan nahi duen jende sail hori. Hau ere pagotxa polita izan liteke: superheroia Leitzan!).

Euskowoman: Egia esateko, nahikoa konpletua behar du izan: pertsona horrek zipritinik gabeko curriculum euskaltzalea izan behar du; hika, zuka edo berorika hitz egiten jakin behar du; baita Euskal Herriko euskalki guztietan hitz egiten ere; euskaraz idatzi duten apaiz eta fraide guztien testuak irensteko gai izan behar du; Gerrate karlistek Donibane Garaziko eskualdean izan zuten eraginari buruzko test bat akatsik gabe erantzuteko gai izan beharko luke; Leitzako baserri bakoitza zer urtetan eraiki zen jakin beharko luke; jakin beharko luke zergatik esaten den Leitzan «dozo» eta ez «deze»...

■ **Marmari:** Zuek ba al dakizue hori? Zergatik esaten da?



«Ez gara ohartzen baina sarritan keinuek gauza bat adierazten dute, hizketan kontrakoa esaten ari bagara ere»

Hori da behinik behin adituek diotena. Geure buruari erreparatuz gero, makina bat keinu egiten dugula ikusiko genuke, baina bakoitza noiz erabiltzen dugun... batek daki! Tira ba, adituen hitza egiaztatzeko egokiena horretan erreparatzea denez, zirrikituetatik begira jarri eta hara zer ikusi dugun.

Oraingoan, Leitzar askorentzat gustuko txokoa den «Gaztañaga» tabernako irudiak ekarri dizkizuegu. Hau Joxe Joakin neskatan egiten saiatu zenekoa da. Ikus dezagun beraz egun hartan gertatutakoa:

Goizeko zortzi eta erdiak ziren. Atarian fresko zegoen eta hantxe elkartu ziren erretiratzeko asmorik ez zuten azkeneko parranderoak.

Batzuk gosaltzen, besteak dantzan, han azaldu zen Joxe Joakin zigarro ke artean. Mozkor samar baina eguna ongi bukatzeko prest zegoen. Aliziarengana hurbildu, haizea hartu eta Jesus amen esan orduko egina zion goiza elkarrekin goxo-goxo pasatzeko proposamena.

Lortu zuela uste al duzue? Azter dezagun bada ikusten ari garena:




JOXE JOAKIN: Irrifartsu, urduritasuna dela eta besoa hazkatzen. Eman behar duen pausoa beretzat garrantzitsua dela kontuan izanez gero, ulertzekoa da.

ALIZIA: Irrifartsu bai, baina besoak gurutzatuta dauzka. Horrek argi adierazten du bere burua arriskuan ikusi duela, hori baita gu eta bestearen artean pareta bat egin eta geure burua salbu ikusteko modua.

Joxe Joakinek horretan erreparatu izan balu, Aliziak bera ez zuela

gustukoa ikusiko zuen baina aurrera egin eta azkenean bakar-bakarrik eta ohe hotzean pasa zuen Joxe Joakinek ajea.

Beraz, norbaitekin hizketan ari garenean eta hark besoak gurutzatuta baditu, erne ibili. Gaiaz aldatu edo esaten ari zarena beste era batean azaldu.



Bitartean tabernaren beste aldean, Bittor eta Kontxexi zeuden. Kontxexi ordu gutxi lo eginda eta bertan lorik ez hartzeko Bittorrekin hizketan; Bittor berriz, gustura zegoela adierazi nahian elkarrizketari eusteko ahaleginetan. Ikus dezagun keinuek zer dioten.

BITTOR: Bere buruari eutsiz egoteak, aspertuta dagoela esan nahi du. Auskalo bere buruan zer dabilen!


KONTXEXI: Goizeko zortzietan pilotari buruz hizketan aritzea interesgarria delakotan.

Honi buruz zer esanen dugu? Denok egon gara noizbait aspertuta buruari ezin eutsiz. Horrelakoe-tan hobe giroz aldatzea.

«Gaztañagan» besterik ez zegoela uste bazenuten oker zaudete. Kanpora atera eta hara norekin egin genuen topo. Hauen itxurari buruz esateko gutxi dago. Seguru aski ere, daukaten jarrera ez da esaten ari direnarekin bat etorriko, baina ez gorputzak berezko hizkuntza duelako, goizeko ordu horietan, gau osoan eman zaion gasolinaren ondorioz, gorputzak nahi duena egitea erabakitzen duelako.

Hau izan zen kuxkuxean ibilita ikusi genuena. Baina lagunok, gorputzarekin hitz egiten dugula egia bada ere, ez pentsa hori irakurtzea erraza denik. Gauza asko hartu behar dira kontuan eta gu ez gara adituak; beraz, norbaitek zuen aurrean eskuak gurtzatu dituela eta, ez zaitezte buruari bueltak hasi eta ez atera ondorio azkarregirik.

Oharra: argazkietan agertu direnak aktoreak dira eta, beraz, hemen azaltzen den egoera edo istorioa ez da benetakoa. Guk dakigula, behintzat.



BENETAKO NAPARRA AL ZARA?

Marmari aldizkariaren 3. alean «Benetako leitzarra al zara?» testa argitaratu genuen. Gure irakurleek esan digutenez, testak era guztietako ondorioak izan ditu. Alde batetik, hainbat leitzarren autoestimua indartzeko balio izan du, «benetako leitzarrak» zirela konprobatu baitute.

Baina, zoritxarrez, bestelako emaitzak ere izan ditugu. Alegia, «benetako leitzarra» ez dela ikusi ondoren depresioaren bidean jarri denik ere bada. Tira, anima zaitez, testak berak «benetako leitzarra» izateko zer egin dezakezun erakusten dizu-eta.

Oraingoan, berriz, «benetako naparrak» garen jakin nahi du-

gu. Izan ere, Leitza Gipuzkoako mugatik bertan dago eta, gainera, inork aitortu ez arren, Gipuzkoarekiko atxikimendu handia erakusten duten sintoma argiak ikusten ditugu: futbolari dago-kionez, errealzale sutsu ugari dago Leitza; uda garaian, nahikoa da eguzki izpi bat azalean sentitzea Orioko hondartza leitzarrez josia ikusteko; bikote bila Gipuzkoara jo dutenak ez dira gutxi; zinera ere, Donostia edo Usurbilera; Gipuzkoako sagardotegi gordeenera joan eta ez da harritzekoa bertan leitzarrak aurkitzea...

Beraz, zalantzak uxatzeko, testa egitea da irtenbiderik onena. Beldurrik gabe egin ezazu eta emaitza, dena delakoa, aitzakiarik gabe onar ezazu.

1.- Errealak eta Osasunak kopako partida jokatu behar dute.

- A) Errealak irabaztea nahi duzu
- B) Osasunak irabaztea nahi duzu
- D) Aukeran, berdinketa
- E) Bihotza erdibituta, ez zara gauza erabakitzeke

2.- Lodosako piperrak, esparragoak, ardo gorria eta Tuterako kukuluak?

- A) Zure jakirik eta edaririk preziatuenak dira
- B) Gustukoak dituzu, baina Tolosako babarrunak, sagardoa eta bisigua nahiago dituzu
- D) Ez dituzu inoiz probatu
- E) Probatuz gero, pikorrak ateratzen zaizkizu



3.- Aukera ezazu:

- A) Iruñeko sanferminak
- B) Tolosako inauteriak

4.- Non jaio zinen?

- A) Nafarroatik kanpo
- B) Nafarroan

5.- Zure gurasoak

- A) Biak naparrak dira
- B) Bietako bat naparra da, bestea ez
- D) Ez dira naparrak

6.- Inbuluzketa, Orendain, Larrasoña, Ezkio, Laukiz, Ibiriku, Uzkiano eta Labiano. Zortzi herri horietako lau Nafarroan daude.

- A) Lauak zein diren badakizu, inolako zalantzarik gabe
- B) Hiru zein diren badakizu, inolako zalantzarik gabe
- D) Bi zein diren badakizu, inolako zalantzarik gabe
- E) Bat zein den badakizu, inolako zalantzarik gabe



7.- Toki hauek, behin gutxienez, bisitatu dituzu: Belagua, Bardeak, Aralarko Santutegia, Leireko monasterioa, Oliteko gaztelua, Urbasa, Lizarra, Orreaga.

- A) Denak bisitatu dituzu
- B) Zerrendako 3 toki gutxienez bisitatu dituzu
- D) Zerrendako 4 toki gutxienez bisitatu dituzu
- E) Zerrendako 6 gutxienez bisitatu dituzu

8.- Jota bat entzuten duzunean

- A) Ez duzu ulertzen zergatik kantatzen duten hain altu, baina tira, disfruta dezakezu
- B) Odolak bor-bor egiten dizu
- D) Ihes egiten duzu

E) Disfrutatzen saiatzen zara, nahiz eta ez duzun lortzen

9.- Kaskagogorra zara

- A) Oso-oso kaskagogorra
- B) Nahikoa kaskagogorra
- D) Pixka bat, besterik ez
- E) Batere ez

10.- Agramondarrak eta beumondarrak

- A) «Los picapiedra»ren bertsio euskalduna zirela uste zenuen
- B) Ez duzu sekula horrelako izenik entzun
- D) Nafarroako historian protagonismo handikoak izan direla bazenekien
- E) Izena ezaguna egin zaizu, baina ezin zenuen inon kokatu

11.- Pilota munduko enpresaria zara eta partida antolatu behar duzu pilotariokin: Abel Barriola, Beloki, Titin III.a eta Alustiza

- A) Bi naparrak elkarrekin jarriko zenituzke, nahiz eta biak atzelariak izan
- B) Naparrak besteekin nahasiko zenituzke, bikoteak aurrelari eta atzelariekin osatuz
- D) Titin III.a eta Alustiza «napar» bihurtuko zenituzke
- E) Partida bertan behera utziko zenuke, denak naparrak ez direlako

12.- ETBkoak elkarrizketa egitera etortzen bazaizkizu

- A) «Izanen naiz» eta «deus ez» esanen diezu
- B) «Izango naiz» eta «ezer ez» esanen diezu
- D) «Izanen» eta «ezer ez» esanen diezu

«Benetako naparra al zara» testaren erantzunen puntuazioa honakoa duzu:

1. a) 1 b) 4 d) 3 e) 2
2. a) 4 b) 3 d) 2 e) 1
3. a) 4 b) 2
4. a) 2 b) 4
5. a) 4 b) 3 d) 2
6. a) 4 b) 3 d) 2 e) 1
7. a) 4 b) 1 d) 2 e) 3
8. a) 3 b) 4 d) 1 e) 2
9. a) 4 b) 3 d) 2 e) 1
10. a) 2 b) 1 d) 4 e) 3
11. a) 3 b) 1 d) 2 e) 4
12. a) 4 b) 2 d) 3

a).- 48-39 puntu lortu dituzu:
benetako naparra zara.
Zorionak.

b).- 38-29 puntu lortu dituzu:
nahikoa naparra zara, baina
naparragoa izan zintezke.
Benetako naparra izateko
zer edo zer egin beharko
duzu. Geografiak, historiak,
gastronomiak... lagunduko
dizute. Futbola ez zaizula
gustatzen? Lasai, ez zara
bakarra.

d).- 28-20 puntu lortu dituzu:
sentitzen dugu, baina urruti
samar gelditu zara.
Kaskagorria izanez gero,
eta seguru asko izanen zara,
agian hurbiltzea lortuko
duzu. Animo!

e).- 19-15 puntu lortu dituzu:
zu ez zaitez saiatu, ez duzu
inoiz lortuko-eta. Ez zara
benetako naparra eta kito.
Hala ere, lasai egon zaitez,
gauza okerragoak gertatzen
dira-eta, ezta? Pentsa
zenbat jende dagoen mundu
honetan, naparra ez dena,
eta hala ere bizirik
jarraitzeko arrazoiak
aurkitzen dituzte... Beraz,
eutsi goiari!

BIGARREN AUKERA... Aurreko testaren emaitza ez da zure gustokoa izan? Bada, bigarrenarekin saia zaitez, ea hobeki moldatzen zaren!

1.- Zein herrialdetan dago Kanpezu?

- A) Bizkaian
- B) Araban
- D) Nafarroan

2.- Nor zen Vittorio Alfieri?

- A) Margolari italiarra
- B) Idazle italiarra
- D) Margolari frantziarra

3.- Zenbat borda (baserri) daude Eraso-ten?

- A) 19
- B) 11
- D) 25

4.- Zein erreka iratzen da Iruñetik?

- A) Ega
- B) Ebro
- D) Arga

5.- Zer da Banful?

- A) Ganbiako hiriburua
- B) Tailandiako hiriburua
- D) Zanziako ibai

6.- Zein izen du Leitzako ermitak?

- A) Santa Engrazia
- B) San Juan
- D) Santa Kruz

7.- UEU-k aurten non antolatu ditu ikastaroak?

- A) Iruñea eta Biarritzen
- B) Iruñea eta Baionan
- D) Donostia eta Baionan

8.- Zein da Milu?

- A) Abeslari bat
- B) Obelixen zakurra
- D) Tintinen zakurra

9.- Zer esan nahi du enasa hitzak?

- A) Euskara batuan masa, pila handia
- B) Espainolez gas butano mota bat
- D) Gure euskalkian zikin-zarpazua

10.- Garai bateko zortzi-miko batek zenbat balio zuen?

- A) 10 xentimo
- B) Pezeta bat
- D) Zentimo bat

ERANTZUNEN ARABERAKO PROFILA

- Denak asmatuz gero, zorionak, zu adinakorik ez dago inguru honetan guzian!
- 9 asmatu badituzu ere, pozik egon, leitzar puru samarra zaren seinale
- 8 asmatu dituen, azkarrilloa, alegia, burutsu-antza
- 7 asmatuz gero, tira, Karrape irratira deitzeko moduan
- 6 asmatu badituzu, ba, Kazorengana joan beharra: jakitea hagitz ona da
- 5 asmatuz gero, erne, berandu baino lehen partikularretan hasi
- 4 asmatu dituen, ene, bere burua apaintzeari utzi eta leitzen hasi dadila
- 3 baino asmatu ez dituen, argi, medikutan hasi beharra: burulogoarengana
- 2 besterik ez?! Erne, gero! Zerbait larria izan dezakezu. Dagoeneko horrela?
- Bat bakarra? Alajaungoikoa! Bakean uztea hobe. Dena den, animo, eutsi!
- Bat bera ere ez? Hamaika ikusteko jaiak izaten omen gara, baina, zero?

ESAERA ZAHARRAK?

Herri jakinduria?

Galdera ikur gehiegi, aukeran? Zer gertatzen da, dena zalantzan jartzen hasi behar al dugu? Bada, agian bai. Zergatik «Esaera zaharrak?» Zer aitzakia bilatzen diogu horri? Hain zuzen ere, ez zaizkigula zaharrak iruditzen, edo ez zaharkituak behintzat, horietako askok gaurko egunean berdin-berdin balio baitute. Eta zergatik «herri ja-

kinduria» galdera ikurraz apaindu? Bada, batzuetan «jakinduria» denik ezin esan daitekeelako, nahikoa oker baitaude.

«Bo, bo, bo. Hori harrokeria! Hainbeste urtetako jakintza eta esperientzia zalantzan jartzea ere!», esanen duzue. Tira, adibide bat edo beste hartuta frogatzen saiatuko gara, zaharkituak ez direla bate-tik, baina beti betetzen ez direla bestetik.

Aldez aurretik esan beharra dugu, bada-
ezpada, esaera zaharrak modu ezberdine-
tan uler daitezkeela batzuetan, eta guk
egiten duguna gure interpretazioa dela,
nahiz eta beste batzuk ere egon daitezke-
en. Beraz, gurekin haserratu behar badu-
zue, haserretu zaitezte lasai, baina izan
dadila beste zerbaitengatik eta ez behin-
tzat horregatik.

«Goxoagoa beti, auzoko obie»

«Txori bakoitzeri, eder bere kabie»

Bietako zeinek balio du? Izan ere, biak dira esaera zaha-
rrak, baina kontrako mezua ematen dute. Horrexegatik
esan dugu batzuetan esaera zaharrak oker daudela, ez
dutela asmatzen. Nolanahi ere, bi hauetan ere egia han-
dia biltzen da, askotan baitira erabilgarri. Adibidez:

«Goxoagoa beti, auzoko obie». Gizakiaren ezaugarri
garrantzitsu batekin estu-estu lotua. Denok onartzen du-
gu zenbait gauza edo ezaugarri baditugula: ikusmena,
burua, gerria, usaimena, inteligentzia (nahiz eta besteei
sarritan ukatzen diegun), gosea, ipurdia, urduritasuna...
baina INBIDIA? Nork dauka inbidiarik? Inork ez. Ez
dugu aitortzen, behintzat.

Eta, orduan, zergatik gustatzen zaigu gehiago ondo-
koaren lanbidea («hi bizi haiz, hi» klasikoa)? Edo ondo-
koaren mutilaren edo neskaren ipurdia? Edo ondokoaren
etxeko egongelako dekorazioa? Edo ondokoaren opo-
rretarako plana? Edo ondokoak aukeratu duen pos-
trea...?

Egia da esaera honetan Murphyren legeak ere badue-

la zerikusia, ez duela dena inbidiak azaltzen. Egia da
nonbait kola egiten egonez gero, zuk hartu duzuna mote-
lagoa dela; egia da lagunak bi pelikula ezberdinetan sar-
tuz gero besteek ikusi dutena beti hobeia dela; egia da...
Kasu horietan, aitortu dezagun, Murphyrena da errua, ez
inbidiarena.

Baina zer gertatzen da askotan? Gauza bat sentitu bai-
na beste bat esaten dugula. Agian horrek azaltzen du he-
rri jakinduriak bi «esaera zahar» kontraesankor sortzea.
Alegia, lagunaren oporrak ikaragarriak eta gureak zozo
antzekoak izan direla jakin eta, hala ere, «Guk bai opor
ederrak egin ditugula, sekula baino hobeak, zoraga-
rriak!» esatea, gure oporkidearen konplizitatea bilatuz.
Edo, mendian, ondokoaren hamaiketako ederra ikusita,
guk ekarritako jaki kadukatu eta mindua jan ondoren or-
gasmoplantak egitea, munduan den gauzarik exotikoe-
na eta goxoena jan begenu bezala. Hau da, «goxoagoa
beti auzoko obie» sentitzea, eta «txori bakoitzari, eder
bere kabie» esatea.

Egia, guztizko egia. Zertarako jakin nahi izaten dugu hainbeste kontu, bestela, besteei kontatzeko ez bada? Zerekin gozatzen dugu denok, dakiguna kontatzen ez bada? Eta ez badugu kontatzen, «badakigula» adierazi eta garbi uztiko dugu. «Ezin dizut kontatu, ezin dizut esan, ezin dut hitz egin... baina BADAKit....». Nork pentsatzen du jakinmina norbera ilustratzeko besterik ez dela? Kuriositateak eta jakin nahiak presumitzearekin eta erakustearekin zerikusirik ez due-la? Zertarako jakin nahi dugu Turkiarrak 1453 urtean Konstantinoplan sartu zirela, edo Turmalina oso konposizio konplexuko aluminio borosilikatoa dela, tarteka gure lagunen aurrean esateko ez baldin bada? Jakintzaren zakua ahal den guztia betetzen dugu, tarteka edo momentu egokietan jendaurrean alerik prezia-tuenak erakusteko.

Batzuetan benetako lasterketak ikusten ditugu, ea nork kon-

«Jakín nahi, konta nahi»

tatzen duen aurrena ez dakit zer kontu. Basoari tragoxka bat edo zigarroari zurrupada eman behar diozula, arnasa hartzeko pausa egiten duzula... edozein deskuido erabiliko du «kontaza-leak» zure eskusiba lapurtzeko eta berria ematearen ohorea zuri kentzeko.

Eta gauza harrigarriagoak ere gertatzen dira. Adibidez, beste norbaitek, zu bertan zaudela, zer eta zuri gertatu zai-zun pasadizoa kontatzea! Baina batzuetan, hain da handia eta eutsiezina batzuen kontatzeko gogo, hain da indartsua jakinaren gainean daudela erakusteko gogo, zuk zerorrek bizi-tutakoa edo sufritutakoa ZURI kontatzen dizutela!. Hauena patologiko da.

Guk esanen genuke alderantziz dela. Alegia, «beste ittekorik etzuenak, besten etxeri su eman zion». Izan ere, errazago ikusten baita aspertuta dagoena besteen bizkar gaizki esaka, barrezka, kritikatzeko edo izorratzen, (etxeari su ematera iritsi gabe), norberaren bizkar hori bera egiten baino. Esaera zaharraren bertsio honek azalduko luke, esaterako, goiz, arratsalde eta gauetz beren moto zahar, txar, zakar eta zalapartatsuekin beste inor baino aspergarriagoak direla erakutsi nahi duten horien kasua. Gauza dira bost minututan 10 aldiz toki beretik pasatzeko, besteen belarriak lehertu beharrez. Edo ez dira ohar-tzen gainerako guztiak izorratzen dituztela, edo jakinaren gainean izorratzen dituzte. Ez dakigu bietako zein den harri-garriagoa edo larriagoa.

Edo, gainerakoan, motozerra lanak egiteko ordurik onena

«Beste ittekorik etzuenak, bere etxeri su eman zion»

igande goizeko 8ak direla erabaki duenaren kasua. 8etatik 10etara egurra egin eta gero ederki gosaltzera, lanak bukata. Lo egiteko egun bakarra duten gainerako auzoak, hor konpon! Ez al da hobe, goizeko 8etatik eguerdiko 12etara kotxea pintatu, pertsiana konpondu, prentsa irakurri, flexioak egin... eta, batez ere, gutxienez igandetan, auzoei lo egiten lasai uztea? Ziur asko, juerga giroko gauetan taberna inguruetan lo egin nahi izaten dutenek antzeko zerbait pentsatuko dute. Tira, denok izanzen ditugu antzeko edo bestelako kexak hemen azaltzeko, baina ezin denak bildu.

Malkarrak zelaitu? Edo, alderantziz, gogortu? Ziu-rrenik diruak beharrak

handitu egiten ditu, ezta? Soldata «normala» duenak 3.000.000 pezetako kotxea BEHAR du, baina dirua duenak ez, dirua duenak 8.000.000 pezetakoa BEHAR du. Eta etxea? Normalean 10-15 kiloko etxea behar badugu, diru asko izanez gero, bizi-tzako ez dakit zer lege misterioitsuren ondorioz, 40-50 kiloko behar dugu.

Dirua duenak, gehiago nahi du. Gero eta gehiago. Beti gehiago. Sekula ez da nahikoa. Eta gezurra badirudi ere, diru pixka bat ikusten dugunean gure arazoak handitu egiten ditu-

«Diruk malkarrak zelaitzen ditto»

gu. Zulo handiagoetan sartzen gara, beharrak pilatu egiten zaizkigu eta BIZITZEKO GUZTIZ, ERABAT ETA OSOTARA EZINBESTEKO bihurtzen zaigu urrezko ileak dituen hortzetako zepiloa, edo Afrikatik ekarritako ebanozko tapa duen komuneko zuloa, edo gure besapea izerditua dagoela abisatuko digun kotxe inteligentea.

Egia izanzen da diruak arazotxo asko konpontzen dizkigula, baina gailendu egiten baldin bazaigu, konpontzen dizkigunak baino handiagoak ere sortzen dizkigu.

«Zentzudun gizona, garaiz ixiltzen dena»

Horixe egia handia. Ñabarduratxoa, hala ere, egin behar zaio. Gizona dioen tokian, pertsona jarri beharko luke, gehiegi hitz egitea ez baita bakarrik gizonezkoen ezau-garria, emakumezkoekin konpartitua da.

Zentzudunak, hitz egiten dakien bezala, badaki isiltzen, badaki noiz ixildu behar duen. Zenbatetan, isilik ez egoteagatik, esan ditugu esan behar ez genituenak? Zenbatetan, sobera zegoen hitz edo esaldi bakar batek, ez ote digu hondatu aurretik esandako guztia? Aaaah! Ez baita beti erraza izaten noiz isildu behar den jakitea.

Batzuetan, isilik egotearen kontu hau kode penalean sartu behar dela proposatzeko gogoia ematen du. Espe-txera joatea hain merke dagoen garai honetan, zergatik ez dituzte «txapistak» espetxerutzen? Zigor gogorregi-rik ere ez dugu hemen proposatuko. Adibidez, alfonbra bat erosi duela kontatzeko 40 minutu behar dituenari 6 hilabeteko kartzela zigorra; juerga giroko gau batean 6-7 aldiz istorio bera kontatzeagatik, urte beteko zigorra; zinean pelikulak dirauen bitartean guztiok entzuteko moduan argudioa kontatzeagatik 2 urte...

«Leku guzitan zakurrek oiñ utsik»

Egia. Esaerari hitzez hitzeko esanahia hartuta agian ez, nonbait izanen delako zakurrari oinetakoak jartzen dizkion «horteroa», baina esaera zahar honek beste esanahi bat du. Gure ustez adierazi nahi duena hau da: askotan iruditzen zaigu gauza batzuk gurean bakarrik gertatzen direla, edo kanpoan dena ezberdina dela (normalean, hobe), baina gero ohartzen gara gure mixeriak besteek ere badituztela. Esaera zahar hau ez da bakar-bakarrik mixeriez ari, baina gu horretaz ariko gara, zuku gehiago du-eta.

Esaterako, gure «idolo glamourdunak», zine-izarrak, modeloak, «ospetsuak»... horiek ere komunetik pasatzen dira, eta ez beti makillatzera eta zein ederrak diren ikustera. Gizaki arrunt guztiok ditugun behar fisiologiko berberak dituzte, eta haien putzak ere minak izan daitezke. Baina hain dira ederrak eta ikusgarriak!

Nola imaginatuko ditugu kakeriak jota komuneko zulo-tik ezin altxatuz?

Beste adibide bat: Nafarroan, bertako hizkuntzaren aurka jo eta su ari den presidentea dugu, bertakoen 100.000tik gora pertsonen botoarekin. Hau marka! Bada, Galizian Manuel Fragak berriz irabazi ditu hauteskundeak 2001. urtean. Hain zuzen ere, galiziarrei botoa ematea 40 urtez eragotzi zien Franko diktadorearekin ministro izandakoari, orain galiziar gehienek botoa ematen diote! Lehen ez zien uzten botoa ematen, eta orain berari eman behar! Eta EEBBetan, 130etik gora pertsonaren heriotza zigorra sinatu duenari, Kuwaiten emakumeei botoa ematea edo kotxea gidatzea debe-tzen dietenen aliatua denari, mundu osoan zehar milioi-ka hildakoen arduradun den gobernuko presidenteari, alegia, George Bushi, estatubatuarrek botoa eman diote.


Ezagutzen al dituzu? Gehientsuenak bai, zalantzarik gabe. Akaso zailxeagoa gertatuko zaizu Arantzazun dauden horiek nor diren asmatzea. Izan ere, ordutik hona urtea batzuk joan dira eta denborarekin itxura ere dezente aldatzen da. Besteak ez dira hain zaharrak, baina garbi dago urte asko ere ez dela behar gure itxura «eguneratzeko».

Ea asmatzen duzuen. Aurrekoe-tan bezala, galdetzea debekatu-ta dago, gutxienez nahikoa saiatu arte.

Ezetz asmatu

Pertsonai izkutua

Ikaragarria da aurreko ale-etako pertsonaia ezkutua-rekin gertatu zaiguna. Edo lehendabizikoan asmatzen dugu, edo ederki saiatuta ere ez dugu inolaz ere asmatzen. Batzuentzat guztiz garbia dena, beste-entzat izugarri iluna edo zaila. Nonbait, lehendabi-ziko begi kolpean asma-tzea komeni da, erotu nahi ez badugu. Oraingoan ere horrela ote da?



Leitzarren izenak gaur egun eta duela 30, 60 eta 80 urte

«Izenak ez do itten izana». Leitzan bildutako esaera zaharra duzu. Hala izanen da, ziur asko, baina hala ere izena garrantzitsua da denontzat. Izan ere, bizitza osoan gurekin eramanen dugun zerbait izanen da, aldatzen ez badugu behintzat (zerrenda honetan bertan ageri dira izena euskaratu duten batzuk).

Egia da, bestalde, eta herriotan ere halaxe izan da, jende asko deitzeko goitizenak edo ezizenak erabiltzen ditugula: etxearen izena izaten da askotan, baina badaude bestelakoak ere. Batzuetan, inor gutxi daki zenbaiten izen «ofiziala» zein den.

Baina oraingoan, lau adin-talde ezberdinen izenak bildu behar ditugu, urte batzuen buruan izenak jartzeko joera nola aldatu den ikusteko. 1997-

1998-1999-2000-2001 urteetan jaiotako izenak aurrena, 1968-1969 urteetakoak eta 1941-1942koak ondoren eta, azkenik, 1919-20-21-22 urteetan jaiotakoak. Datuok Leitzan erroldatuta dauden pertsonen zerrendatik atera ditugu.

Lehendabiziko taldean, beraz, Leitzan bizi diren 0 eta 5 urte bitarteko haurren izenak daude (erne guraso izanen zaretenak, originalak izan nahi baduzue), ondoren gaur egun 33-32 urte eta 59-60 urte dituztenenak, eta azkenik 79-80-81-82 urtekoak.

Izenen estiloan aldea nabarmena da. Gaur egungo izenak motzakoak, osagai bakarrekoak eta euskal jatorrikoak dira

gehienbat. Duela 32-33 urtekoak, berriz, askotan izan konposatuak, luzeagoak eta erdal jatorrikoak ziren. Eta duela 60 edo 80 urtekoak, gaur egun agian xelegeagoak eta deigarriagoak irudituko zaizkigu, nahiz eta garai hartan guztiz arruntak izanen ziren. Batek daki hemendik 60 urtera zer pentsatuko duten gaurko izenez!

Taula hauetan, beraz, izenen zerrenda aurkituko duzu. Alfabetikoki ordenatuta daude, eta izenak erroldan agertzen diren bezalaxe jaso ditugu.

OHARRA: «ER.» Laburdurak adierazten du urte-tarte horretan izen hori zenbat aldiz errepikatu den.



1997-1998-1999-2000-2001 urteetan jaiotakoak

IZENA	ER.	IZENA	ER.	IZENA	ER.
Adriana.....	1	Gorka Max.....	1	Lore	1
Ainara.....	2	Iker	1	Maia	1
Aimar	1	Iñaki	1	Maider	1
Ainhize.....	1	Iñigo	2	Mañel	1
Aintzane	1	Iraitz	1	Manex.....	1
Aitana.....	1	Itxaro	1	Maria Isabel	1
Aitor	2	Itsaso	1	Martxel	1
Aitziber	2	Izar	1	Miguel	1
Alai.....	1	Janire	1	Mikel	4
Alaitz.....	2	Jennifer.....	1	Nahia	3
Aloña.....	1	Joanes	2	Naroa.....	1
Amaia.....	1	Joel	1	Oier.....	1
Amets	1	Jon	1	Oiher.....	1
Ander	2	Jon Martin.....	1	Oihan.....	1
Andrea.....	1	Jonathan	1	Patxi	1
Aritz	1	Joseba.....	2	Saioa.....	1
Aroa	1	Josu	1	Sarai	2
Asier.....	1	Josu Iñaki.....	1	Xabat	1
Beñat	4	Julene	1	Xabier.....	1
Daniel.....	1	Koldo.....	1	Unai.....	1
Elene	1	Leire	1	Uxue	2

1968-1969 urteetan jaiotakoak

IZENA	ER.	IZENA	ER.	IZENA	ER.
Alberto	1	José Maria.....	3	Maria Teresa	1
Alfonso Joaquín.....	1	Juan Carlos	1	Maximino	1
Ana Isabel.....	1	Juan José.....	3	Miguel	3
Antonio	1	Juan Maria	2	Miguel Ángel.....	4
Bakartxo.....	1	Juan Martín.....	1	Miguel José.....	1
Catalina	1	Juan Ramón	1	Miguel Maria	1
Carmelo.....	1	Lierni.....	1	Miren Jasone	1
Clemente	1	Maria	1	Miren Maddalen	1
Cristóbal.....	1	Maria Amaya	1	Iñaki	1
David.....	2	Maria Aranzazu	4	Onditz.....	1
Francisco Javier	2	Maria Asunción	1	Patxi	1
Idoia	2	Maria Carmen.....	3	Pablo.....	1
Ignacio	2	Maria Cristina	1	Pedro	1
Irene	1	Maria del Coro	1	Pedro Maria	1
Jaione	1	Maria Dolores	1	Piedad.....	1
Jesús Maria	3	Maria Isabel	2	Pilar	1
Joaquín	1	Maria Izaskun	2	Santiago.....	1
José Antonio	1	Maria Lourdes	1	Secundino.....	1
José Ignacio	1	Maria Micaela.....	1	Xabier.....	1

1941-1942 urteetan jaioetakoak

IZENA	ER.	IZENA	ER.	IZENA	ER.
Álvaro	1	Juana Maria	1	Martín Joaquín	1
Ana Maria	1	Juan Maria	1	Martín José	2
Andrés	1	Juan Martín	2	Matilde	1
Bautista	1	Hilario	1	Miguel	3
Brígida	1	Luciano	1	Miguel Antonio	1
Eusebio	2	Lucio	1	Miguel Luis	1
Fermín	1	Manuel	1	Miguel Maria	1
Francisco	1	Maria Ángeles	1	Miguel Martín	1
Francisco Javier	1	Maria Asunción	2	Miren Mertxe	1
Irene	1	Maria Begoña	1	Narciso	1
Isabel	1	Maria Carmen	5	Pedro	1
Javier	1	Maria Dolores	1	Pilar	1
Jesús	2	Maria Jesús	2	Ramón	1
Joaquina	1	Maria Joaquina	1	Rosa Maria	1
Jorge	1	Maria Luisa	1	Santiago	1
José Antonio	1	Maria Pilar	1	Sebastiana	1
Joseba	1	Maria Reyes	1	Tiburcio	1
José Maria	1	Maria Rosario	1	Tomas	1
Juan	2	Martín	1	Víctor	1



1919-1920-1921-1922 urteetan jaioetakoak

IZENA	ER.	IZENA	ER.	IZENA	ER.
Antonia	1	Gregorio	1	Marcelino	1
Antonio	1	Ignacia	2	Maria	4
Basilio	1	Ignacio	1	Maria Jesús	2
Benito	1	Inés	1	Maria Josefa	1
Belén	1	Joaquina	1	Maria Luisa	2
Bonifacio	1	Joaquina Antonia	1	Maria Mercedes Isabel	1
Camila	1	José	1	Maria Micaela	1
Cristóbal	1	José Ángel	1	Martín	1
Dionisia	1	José Fermín	1	Miguel	2
Dominica	1	José Joaquín	1	Paulina	2
Felicitas	1	José Juan	1	Ramón	1
Fermín	1	Juan	2	Sabina	1
Fermina	1	Juana	1	Serafina	1
Florencio	1	Justo	1	Telesfora	1
Florentina	1	Lorenzo	1	Timoteo	1
Francisco	1	Luis	1	Venancia	1

GURE BARRUKO

laguna

Larunbata da eta goizeko 5etan leitzar bat bere etxera abiatu da taberna batetik. Trago bat baino gehiago ditu hartuak eta ohea hartzeko irrikitan dago. Etxera ailegatu eta sukaldean duen ur botilari muxu bat eman ondoren, arropa kendu eta ohean sartu da. Hankak sartu orduko lo hartu eta hurrengo goizera arte arazorik gabe maindireen azpian gelditu da.

Bat-batean zurrumbilo bat sumatu du. Gero eta argiagoa da eta azkenean konturatu da norbait kantari ari dela bere logelan: « mayonesa, ... , mayonesa,...». Begiak ireki eta bere gelako izkina batean norbait dagoela sumatu du. Ezin du ikusi nor den, baina badaki ahotsa hortik heldu dela.

-Nor zara zu?

-Zure barruko laguna naiz. Beti egon izan naiz zure barruan baina orain arte ez nauzu deitu. Niri arazoak daudenen bakarrik deitzen zait, eta kasu honetan badakit zein den zure arazoa, baina zure ahotik entzun nahi dut.

-Ez dakit zehazki zer arazori buruz ari zaren.

-Bai, motel! Gaur gauen hainbeste lan eman dizun arazo horri buruz ari naiz.

-Ah! Orain oroitzen naiz, baina hori ez da gaur gauekoa bakarrik. Baliteke gaur bereziki sentitu izana. Gaur bai pasatu dugula gau guztia ia taberna guztietan abesti berak entzuten. Gau guztia «mayonesa» egiten, «bailando toda la

noche», «gran hermano», txunpa-txunpa...

-Hori jartzen badute, jendeak hala nahi duelako izanen da, ez?

-Baliteke horrela izatea, eta parrandan nagoela ere gustatzen zait entzutea eta dantzatzea, baina hortik gau osoa musika berdinarekin egotera, alde handia dago. Gainera, inoiz musika mota aldatzen badute, orain dela 20 urteko musika jartzen dute, eta batzuetan pentsatzen dut azkeneko 20 urteetan ez dela ezer berririk egin, edo tabernariak ez dutela azken 20 urte hauetan musikarik entzun. Beti udako abesti komertzial horiekin egiten dute lan, eta hurrengo uda izan arte berririk ez dagoenez, musika berberarekin jarraitzen dute.

-Ez da hainbesterako izanen. Astez ez dute musika hori jartzen.

-Horrek ez dit balio. Giroa jartzeko erabiltzen da musika eta giroak ez ditu asteko egunak ezagutzen. Musika mota asko daude giro ona jartzen dutenak, dantzatzeko edo gustura egoteko. Gainera, nik ez dut esaten musika mota hori ez jartzeko, nik esaten dudana da mota guztietako musika jarri behar dutela. Kontuan eduki herri ttiki batean bizi garela eta gustu guztietako jendea dagoela; horrek esan nahi du jende guztiaren gustua egiten saiatu behar direla, bestela jendeak ateratzeari utziko dio.

-Hori oso ongi dago, denen gustua egitea, baina denen gustua egiteko bolumenaren arazoa ere hor dago.

-Batzuentzat arazo bat da. Niri musika altu entzutea gustatzen zait, baina batzuetan ezin da ondokoarekin hitz egin eta horrek giroa hoztu egiten du.

-Esan nahi zenuena esan duzu, eta espero dut zure loa lasaiagoa izanen dela.

-Bai, orain lasaiago nago, baina badakit beraiek nahi dutena eginen dutela. Horrela jarraitzen badute, nirekin beti ere, tabernara ez ateratzea lortuko dute.

-Ongi lo egin.



Eguerdiko 12etan esnatu da gure leitzarra. Buruko minaz gainera baditu buruan egindako ametsaren oroitzapen izpi batzuk. Ohetik altxatu gabe irratia jarri du eta ez daki kasualitatea den edo bere patua den, baina entzuten den abestiaren hitzek zera diote:

*Zenbat pijada entzun behar diren
Gure inguruko tabernetan
Telebista kateak bailiren
Horteroen lehiaketan*

Nire barruko laguna

Taula honetan Leitzako 10 baserriren izenak sartu ditugu. Ea Marmariren hurrengo alea atera baino lehen aurkitzen dituzun, nahikoa erraza da eta.



B	G	U	K	E	B	O	L	I	P	F	A	O	B
A	A	S	M	K	A	D	A	R	I	E	S	R	U
R	S	R	A	G	I	N	G	O	P	A	U	A	Z
U	T	D	R	O	R	A	U	B	E	G	R	O	T
K	A	T	A	R	R	K	G	R	S	I	O	K	A
T	I	X	H	R	E	U	I	G	A	N	G	O	I
O	T	R	U	I	B	N	N	E	L	B	O	X	Z
U	Z	T	A	K	A	T	E	B	A	I	R	T	U
R	A	I	M	A	D	O	R	A	K	A	I	A	L
L	G	B	A	T	R	U	R	K	O	R	T	X	O
O	A	N	I	K	O	T	E	I	R	O	Z	A	K
X	K	Z	E	N	B	I	A	O	T	I	E	T	I
I	R	J	T	A	O	U	G	A	E	Z	T	E	B
S	A	I	A	R	R	O	K	L	A	M	A	D	A

[illegible]

Baserriak: Barrenea, Astaizaga, Urto, Bordaberri, Malkorra, Barun, Esalakortea, Gorritz, Txokoa, Maleta

Tel.: 948 51 02 83

Tel.: 948 510534 / 649 47 66 15

NAFARROAKO KUTXA

**Esaguzu nolako
zaren eta zein pentsio
komeni zaizun esango
dizugu**

CAJA LABORAL
KIDKALIBRI3 KILERA

ARIES: Hala seittu ezkeo «Kalkutako Ama Teresakin» nastuko zattue. Zere burun gehixeo pentsatu.



TAURUS: Mejoratu dozo bai. Leno bezin kaskagorra etzala, esan beharra dau. Sei zazo hola earki ai za ta.



GEMINI: Pitufoan marrazkik ikusteko garaie joan zen! Liburu bat leittu, burue telebixoa bezin laukie galditzen hasi zazo ta.



CANCER: Hemendik bost euneta zure ametsetako azukre koxorra aurkittuko dozo. Ospatzen al dozo! Urkiolako erromerire berriez joateko lanik eztozo ta izanen.



LEO: Ez al zabilitze estresatu antza? Hala ibiltzeik eztau ba. Zoaz balneariora ta estresa uztekin bueltatu.



UIRGO: Oaintxe dozo ametsa egie bihurtzeko aukera. Antzerki eskolan hasi ezkeo, fama lortu ta zure izen ona mundun barrena zabalduko dozo.



LIBRA: «Jan da lo potolo». Txokolatek menpekotasune sortzen dula eroskopa leittuta enteatu behar izatea ere. Zuk dittozo zuk...Txokolate gutxio jan ta kirol gehio in.



SCORPIUS: Loteria irabazi ez dozola ta kejo...Hortako lenbizi jokatu in behar da! Hara, ostielekoan 66666 zenbakire jokatu ta beharbada irabaziko dozo.



SAGITARIUS: Eskiatzea Jaka-
ra? Motel hartzazo plastikoa ta
sei zazo Kornita! Hoi bai, haize
errotak, arbolak, harri kozko-
rrak ta behorrrak ere, ez aztu!



CAPRIKORNIUS: Ametsak eukitzea ongi dau beño lortzeko arriskatu in behar da. Irabazteko gehio daukezo galtzeko beño. Muittuuuu!



AQUARIUS: Zure «ni»e aurkitzeko garaie dozo. Oporrak hartu ta zoaz tenplu budiste batea. OMMMMM



PISCIS: Euskara bihotzen eta ahoan zer? Tira, euskara maitatu ezeze, gozatu're in behar da.

zer diozu?

eta zuk,

Amaia Vicente



- Pelikula bat: Cadena Perpetua.
- Liburu bat: Ezta bat ere. Ez dut irakurtzen.
- Pertsonaia bat: (Tik-tak, tik-tak, tik-tak... Ez du erantzuten. Tik-tak... Utzi eginen dugu).
- Fototropismoaren definizio bat: Zer da hori? (Geronek ere ez daki-gu-eta. Probatzeagatik galdetu diogu).
- Txikitan, zer izan nahi zenuen? Ez dakit. Ez nuen horretan pentsatzen.
- Eta zer zara? Nork daki? Kamareroa edo.
- Zergatik esaten zaie leitzarrei «fan-farroiak»? Hala garelako.
- Internetek zure bizitza aldatu al du? Ez.
- Leitzako txokorik ederrena? Leitzelarrea, Usategieta.
- Eta itsusiena? Ez dago itsusirik. Ah, bai, koartela.
- Kirol gehiegi egiten al da Leitzan? Ez, nire inguruan ez behintzat.
- Zein da Leitzak duen gauzarik txarrena? Itxiegiak garela.
- Eta onena? Pestak, inñauteriak, ingurua, mendia...
- Zergatik erortzen zaie ilea gizonez-koei emakumez-koei baino errazago? Gehiegi pentsatzen dutelako.
- Euroak e(u)rotuko al zaitu? Pixka bat bai.
- Lotsatuko al zara Marmariko kontrazalean agertzeagatik? Bai.

Jon Kepa Irigoien

- Pelikula bat: Matrix.
- Liburu bat: Alkimista.
- Pertsonaia bat: Jimmy Hendrix.
- Fototropismoaren definizio bat: Idearik ez (Tira, honek ere ez daki).
- Txikitan, zer izan nahi zenuen? Edozein gauza.
- Eta zer zara? Buuuuh! Oraindik bidean naiz.
- Zergatik esaten zaie leitzarrei «fan-farroiak»? Hala garelako (Hara! Besteak eman duen erantzun berbera).
- Internetek zure bizitza aldatu al du? Igoal aldatuko du, baina oraingoz ez behintzat.
- Leitzako txokorik ederrena? Nire etxea.
- Eta itsusiena? Nire etxe ondokoa.
- Kirol gehiegi egiten al da Leitzan? Ez.
- Zein da Leitzak duen gauzarik txarrena? Inbidia.
- Eta onena? Gazteen arteko «rolloa».
- Zergatik erortzen zaie ilea gizonez-koei emakumez-koei baino errazago? Gehiago pentsatzen dutelako.
- Euroak e(u)rotuko al zaitu? Kontrolpean daukat.
- Lotsatuko al zara Marmariko kontrazalean agertzeagatik? Bai, pixka bat.

